

NAFARROAKO ETXEBIZITZEN ETA ERAIKINEN BIRGAITZEA ETA HOBEEKUNTZA ENERGETIKOA BULTZATZEKO PLANA

**REACTIVAR NAVARRA
NAFARROA SUSPERTU
2020-2023**

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Nasuvinsa 
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

**Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia**



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU

AURKIBIDEA

SARRERA

BIRGAITZEKO LAGUNTZAK



1. Etxebizitza eta eraikinetarako laguntza iraunkorrak



2. Eraikinen inguratzaile termikoak (PREE)



3. Birgaitzea landa-ingurunean (PREE 5000)



4. Energia-eraginkortasuna etxebizitzetan (MRR ETXEBIZITZAK)



5. Lehendik dauden eraikinak birgaitzea (MRR ERAIKINAK)



6. Birgaitzea auzo esparruetan (MRR AUZOAK)

BESTELAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK



7. Amiantoaren kementzako tratamendua (MRR) eta eraikinaren liburua prestatzea (LEE MRR)

LAGUNTZA TALDEAK

- EEZB BULEGOAK
- ELENA PROGRAMA

BIZIBERRI / NAVARRA REHABILITA SARIA

SARRERA



ZER DA BIZIBERRI PLANA?

Gure hiriek, herriek, auzoek edota bizilagunen-komunitateek eraldatu eta **biziberritzeko prozesu handi bati ekiteko aukera izanen dute datozen urteotan**, bai Nafarroan, bai Europa osoan. Hori, jakina, lagungarria izanen da hiria deskarbonizatzeke, trantsizio ekologikoko eta larrialdi klimatikoari erantzuteko testuinguruan eta, lagungarria, halaber, gure etxebizitzaren kontsumo energetikoa nabarmen murrizteko, espazio osasuntsuagoak eta atseginagoak birgaitzeko, gure eraikinen balioa handitzeko eta gure hiri- eta bizikidetzaren espazioen gizarte-kohesioa hobetzeko.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren bidez eta, Nasuvinsa sozietate publikoarekin nahiz EEZB bulegoekin elkarlanean, **etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta biziberritzeko estrategia anbiziotsuari heldu dio**, begirada hiri eraikian pausatzeko eta huraxe biziberritzeko, egun dauden etxebizitzak berritzeko eta gure bizigarritasuna eta bizi-kalitatea komunitatean hobetzeko, betiere hiri-jasangarritasunerako printzipioekin bat.

Biziberri Plana bultzada publiko sendoa da Nafarroako etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta energetikoki hobetzeko. Plana Foru Gobernuak abiarazi du 2030 Agendako 11. GJH helburuaren baitan. Planak erantzuten dio gure hiriek, auzoek eta hiri-espazioek egun dituzten energia-, gizarte-, giza eta hiri-erronka handiei. Eta, halaber, erantzun bat da, birgaitze energetikoaren aldeko politikak berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren aldeko tresna bihurtu daitezen gure hiri- eta landa-inguruneetan.

Nafarroan lehendik baziren birgaitze babesturako sistema aurreratuaren barruko laguntza iraunkorrak, eta orain, Next Generation Europako planaren funtsak gehitu zaizkie Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen (MRR) bidez. Bada, funtsak aukera bat dira eta Foru Komunitateak aprobetxatu behar ditu, betiere bizilagunen erkidegoak, eragile profesionalak, eraikuntza sektorea eta gizarte osoa inplikatur.

Biziberri Planak laguntza publikoak banatzeko zenbait programa berezi abiarazi ditu etxebizitzak, eraikinak eta auzoak energetikoki birgaitze aldera. Horien osagarri, hortxe daude Nafarroako Gobernuak lehendik ematen zituen dirulaguntza iraunkorrak (24 milioi euro, iaz). Horrenbestez, bere osoan, ia beste 50 milioi euro izanen dira datozen hiru urtean, Next Generation Europako suspertze arloko funtsen baitan.



EGIZU BAT BIZIBERRI PROIEKTUEKIN. ZER LAGUNTZA BEHAR DUZU?





1 ETXEBIZITZA ETA ERAIKINETARAKO LAGUNTZA IRAUNKORRAK

Etxebizitzak eta etxebizitza-eraikinak konpondu, hobetu eta egokitzeko lanetarako laguntzak dira: instalazio termiko zentralizatuak, barneko berokuntza jartzea, bizigarritasun egokitzapena eta desgaitasuna duten pertsonendako egokitzapena.

ONURADUNAK

- Errenta maila jakin bat duten pertsona fisikoak
- Bizilagunen erkidegoak
- Bere etxebizitza gutxienez 5 urtez alokatu nahi duten pertsona fisikoak edo juridikoak

BALDINTZAK

- 20 urtetik gorako antzintasuna duen etxebizitza
- Ohiko bizileku iraunkorra izateko etxebizitza

DIRULAGUNTZAK

- 6.000 eta 7.500€ artean, inguratzaille termikoa jartzeko
- 3.000 eta 13.000€ artean, oztopoak ezabatzeko
- 12.000€-ra bitarte, alokatzeko diren etxebizitzetarako

ESKAERA EPEA

- Beti zabalik

OHARRAK

- Laguntza hauek bateragarriak dira PREE eta PREE 5000 laguntzekin

ARGIBIDEAK

TRAMITAZIO FITXA



2 ERAIKINEN INGURATZAILE TERMIKOAK (PREE)

Inguratzaile termikoa
eraikin osoetan hobetzeko laguntzak.

ONURADUNAK:

jabeen erkidegoak edo
jabeen erkidegoen
elkartek

ESKAERA EPEA ITXIA DAĞO:

3.517 etxebizitza
birgaitzeko, 170
espedientetan

Inbertsioa guztira 80
milioi euro eta PREE
laguntzak inbertsio
honetarako:
22 milioi euro

112 espediente eta
2.427 etxebizitza
Iruñean. Gehienak
Txantrea auzoan (45
espediente eta 518
etxebizitza ari dira
birgaitzen; guztien %
21,34). Orvina-Txantrean
birgaitutako lehen
etxebizitza-blokeetako
bizilagunen pozak
bultzada handia eman
dio

Bizilagunen erkidegoek
eta elkarteek, halaber,
birgaitze proiektuak
aurkeztu dituzte
Iruñerrian (Barañain,
Burlata, Atarrabia,
Zizur Nagusia, Uharte,
Orkoien, etab.),
Estellerrian, Tafallan,
Leitzaranen, Tuteran eta
Sakanan (6 espediente
eta 48 etxebizitza
birgaitzen ari dira)



3 BIRGAITZEA LANDA- INGURUNEAN (PREE 5000)

Inguratzaile termikoa etxebizitza familiabakarretan eta bizitegitarako eraikinetan erronka demografia duten herrietan (5.000 biztanletik beherako herriak).

ONURADUNAK

- Etxebizitza familiabakarren jabe diren pertsona fisikoak
- Jabeen erkidegoak
- Jabeen erkidegoen elkarteak

BALDINTZAK

- 25 urtetik gorako antzinatasuna duen etxebizitza

DIRULAGUNTZAK

- 12.000 eta 12.500€ artean, gutxi gorabehera

ESKAERA EPEA

- 2023ko abenduaren 31ra arte

OHARRAK

- Laguntza hauek bateragarriak dira Nafarroako Gobernuak birgaitze babestuari ematen dizkionarekin

ARGIBIDEAK

TRAMITAZIO FITXA



4 ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETXEBIZITZETAN (MRR ETXEBIZITZAK)

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera etxebizitzetan egin diren lanetarako laguntzak dira, baldin eta berokuntzako eta hozteko urteko energia-eskari globala gutxienez % 7 murrizten bada edota energia primarioaren kontsumo ez-berriztagarria gutxienez % 30 murrizten bada.

ONURADUNAK

- Etxebizitzen jabe, gozamendun edo maizter diren pertsona fisikoak
- Etxebizitzen jabeak diren administrazio publikoak

BALDINTZAK

- Tipologia edo antzinatasun orotako etxebizitzak
- Mugarik gabe diru-sarreretan

DIRULAGUNTZAK

- Gehienez 3.000€ etxebizitzako

ESKAERA EPEA

- Zabalik, dirulaguntzak agortu arte

OHARRAK

- Laguntzak hauek bateragarriak dira MRR ERAIKINAK eta MRR AUZOAK programakoekin

ARGIBIDEAK

TRAMITAZIO FITXA



5 LEHENDIK DAUDEN ERAIKINAK BIRGAITZEA (MRR ERAIKINAK)

Laguntzak dira bizitzeko diren eraikinak birgaitzeko edo energiaren aldetik birgaitzeko hobekuntza nabarmeneko lanak egiten dituztenentzat.

ONURADUNAK

- Familia bakarreko etxebizitza bakartuen edo lerroan elkartuen jabeak edo gozamendunak diren pertsona fisikoak edo juridikoak
- Administrazio Publikoak
- Jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak
- Kooperatibak eta eraikinen enpresa errentariak edo emakidunak

BALDINTZAK

- 20 urtetik gorako antzinatasuna
- Energiaren kontsumo ez-berriztagarria gutxienez % 45 murriztea eta urteko energia-eskari globala gutxienez % 25 edo % 35 murriztea (zona klimatikoaren arabera).

DIRULAGUNTZAK

- Gehienez, 16.000€ etxebizitzako, landa-ingurunean
- Gehienez, 12.000€ etxebizitzako, hiri-ingurunean

ESKAERA EPEA

- Zabalik, dirulaguntzak agortu arte

OHARRAK

- Laguntzak hauek bateragarriak dira MRR ETXEBIZITZA programakoekin

ARGIBIDEAK

TRAMITAZIO FITXA



6 BIRGAITZEA AUZO ESPARRUETAN (MRR AUZOAK)

Eraginkortasun energetikoa hobetzeko laguntzak dira lehentasunez birgaitu beharreko auzoetan kokaturik dauden bizitegi motako eraikinetarako.

ONURADUNAK

- Pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak (jabeen erkidegoak eta elkarteak)
- Toki Entitateak

BALDINTZAK

- Hirietan eta herrietan lehentasunez birgaitu beharreko eremu gisa definitu diren auzoak

DIRULAGUNTZAK

- Hiri-eremuetan, aurrezpen energetikoaren arabera, gehienez 5.500 eta 12.500 euro artean etxebizitzako
- Landa-eremuetan, aurrezpen energetikoaren arabera, gehienez 7.000 eta 13.900 euro artean etxebizitzako
- Toki Entitateak: laguntzen % 10 berroneratze proiektuetarako dira, lehentasunez birgaitu beharreko eremu izendatu diren auzoetan

ESKAERA EPEA

- Laster argitaratuko da, laguntzak agortu arte

OHARRAK

- Laguntza hauek bateragarriak dira Nafarroako Gobernuak birgaitze babestuari ematen dizkionarekin eta MRR ETXEBIZITZAK laguntzekin

BESTELAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK



AMIANTOA KENTZEKO TRATAMENDUA (MRR)

Next Generationeko MRR ERAIKINAK eta MRR AUZOAK laguntza-deialdiek amiantoa kentzeko laguntzak gehigarriak aurreikusten dituzte.

ERAIKINAREN LIBURUA (LEE MRR)

Lehendik dagoen eraikinaren liburua prestatzeko edo birgaitze proiektuak idazteko laguntzak dira.

ONURADUNAK

- Eraikinen jabe diren pertsona fisikoak
- Jabeen erkidegoak

BALDINTZAK

- 2000 baino lehen bukatuta dauden eraikinak (ez familiabakarrekoak).
- Liburua egina egon beharko da laguntzetarako aurkezteko eta, halaber, Eraikinen Ebaluaziorako Erregistro Orokorrean inskribatua

DIRULAGUNTZAK

- 700€ (20 etxebizitzara arte) eta 1.100€ (20 etxebizitzatik gora) artean

ESKAERA EPEA

- Zabalik, dirulaguntzak agortu arte

ARGIBIDEAK

TRAMITAZIO FITXA



LAGUNTZA TALDEAK

EEZB BULEGOAK

Birgaitze Babestuari eta espedienteak tramitatzeari buruzko argibidea eskuratzeko, badira Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoak (EEZB) Nafarroako hainbat herritan.

ORVE Baztan-Bidasoa

Merkatarien k., 6
Doneztebe
baztanbidasoa@nasuvinsa.es
848420140

ORVE Sakana

Uriz k., 32
Lakuntza
ezabu@sakana-mank.eus
948576293

EEZB Pirinioak-Agoitz

Trinkete k., 13
Agoitz
pirineo-aoiz@nasuvinsa.es
848420244

EEZB Pirinioak-Zangoza

Kale Nagusia, 8
Zangoza
pirineo-sanguesa@nasuvinsa.es
848420144

EEZB Estellerria

Fray Diego k., 3
Estella-Lizarra
orve@orvetierraestella.net
948552103

EEZB Tafallako eskualdea

García Goyena k., 22-behea
Tafalla
orvetafalla@gmail.com
948755034

EEZB Erribera

Capuchinos k., 6 - 1.
Tutera
ribera.tudela@nasuvinsa.es
848420340

EEZB Iruñerria

Joaquín Azcarate k., zk.g. behea
Burlata
info@orvecomarcapamplona.com
948130233

ORVE Pamplona-Iruña

Hilarion Eslava k. 1b, behe
solairua
Iruña
orve@pamplona.es
948420980 / 948420981



**Zure
EEZBrik
hurbilena**

ELENA TALDEAK, ERKIDEGOEN ZERBITZUAN

Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak eta Nasuvinsak ELENA-PRIMAVERA izeneko programa abiarazi dute 2021. urtearen erdialdetik (toki entitateei laguntza energetikoa emateko programa). 16 profesionalaz osaturiko talde teknikoa da, Foru Komunitateko eskualde guztietan banatua. Eraikinen birgaitze energetikoa egiteko proiektua sustatzea erabaki eta huraxe egitera animatzen diren auzokide erkidegoak dinamizatu eta estimulatzea du helburu.

Taldeok segimendua egiteko eta laguntza emateko zerbitzua eskainiko diete doan erkidego sustatzaileei herritarrek parte hartzeko prozesu osoan, proiektu arkitektonikoa idazteko, laguntza publikoak tramitatzeke, lanak finantzatu edo esleitu, gauzatu eta ziurtatzeko, beste pauso batzuen artean, eta bizitegi-eraikin kolektibo baten birgaitze energetiko integralak dakartzan gestio askotan ere bai. Auzokideek, azken buruan, uneoro jasoko dute laguntza talde horretako profesionalen aldetik.

Nasuvinsa sozietate publikoko ELENA taldeko profesionalak erabat koordinaturik lan egingen dute Nafarroa osoan banatuta dauden Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko bederatzi Bulegoekin (EEZB), bulego horietan birgaitze babesturako laguntzak tramitatzen baitira. Koordinazioan arituko dira, halaber, programari atxikitzeke hitzarmenak sinatuz joan diren udalekin. Programa EBko Europako Inbertsio Bankuak (EIB) finantzatu du, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin (NUKF) elkarlanean.

Zehazki, profesionalak bulego hauetan arituko dira lanean:

- **Iruñean**
(Sanduzelai etorb. 8 eta Huarte kalea 12)
- **Donezteben**
(Merkatarien karrika 6)
- **Lakuntzan** (Uriz 32)
- **Agoitzen** (Trinkete kalea, 13)
- **Tafallan** (Zangozako etorb., 1)
- **Lizarran** (Bell-Vista kalea, 2)
- **Tuteran** (Estanca kalea 8)

ELENAko teknikariok 8 kokapenetan gaude, baina kokapen haietako batzuk EEZB bulegoak dira. Programa hau, beraz, gehitu zaio bederatzi EEZB bulegoak lehendik egiten ari ziren lanari.

BIZIBERRI / NAVARRA REHABILITA SARIA



PREMIO BIZIBERRI / NAVARRA REHABILITA

‘Biziberri Navarra Rehabilita’ sariek Nafarroako birgaitze proiekturik osoenak hartzen dituzte aintzat eta bi urtez behin ematen dira.

Edizio bakoitzean aukeratu diren lanek erakusten dute nola zegoen etxea edo eraikina esku hartu aurretik eta nola dagoen ondotik eta, era berean, berrikuntza horrek zer ekarri dion hiri-inguruneari, etxebizitzaren jabeari edo erabiltzaileari.

Sariaren helburua da birgaitze babestu nabarmenenak aitortzea, hain zuzen ere honako hauengatik nabarmendu direnak: eraikina mantentzen egindako ekarpenarengatik; gauzatzearen kalitatearengatik; arkitektura arduratsua ezartzeagatik, ingurumenarekin konprometiturik; edo dauden eraikuntzak kontserbatzeagatik, horiek berrinterpretatuz eta egungo beharretara egokituz.



Proiektu irabazlea 2020 edizioan

Eraikinak 100 urte baino gehiago ditu, artegi izateko eraikia. Birgaitu baino lehen ez zen erabiltzen. Eraikina familiarena zen. Iñakik eta haren bikotekide Estibalizek Bidaurretan bizi nahi zuten (Ettxauribar); bada, eraikina birgaitzea erabaki zuten, bertan beren etxebizitza sortzeko.

Bideoa, 12 min

https://www.youtube.com/watch?v=ZdkgehXuL_w

Bideoa, 2 min

<https://www.youtube.com/watch?v=7U2tl8fwtRk>

Proiektu irabazlea 2018 edizioan

100 urtetik gorako borda bat da, Gardeko hirigunean kokatua (Erronkaribar). Sustatzailea emakume abeltzain gazte bat da. Jarduera familiarrari segida ematea eta bere jaioterrian bizitza erabaki du, ibarreko jarduerari euste aldera eta biztanleria finkatze aldera.

Bideoa

<https://www.youtube.com/watch?v=22NLk2Mb3pU>



BIZIBERRI

NAVARRA REHABILITA



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU